



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko irailaren 24a

100. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremurako mezenasgoari buruzko foru lege bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri sorta bat prestatu eta abian jar dezan, pandemiak irauten duen bitartean laneko eta familiako bizitzaren uztartzea ziurtatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garapen digitaleko estrategia bat defini dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitalegunea urgentziaz erreforma dezan. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren izapideak egin ditzan Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin, Lizarrako osasun etxearekin partekatzen dituen instalazioen lagapena/dohaintza egiteko. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebalua ditzan COVID-19aren pandemia dela-eta neska-mutiko desgaituen ahalmen funtzionala eta narriadura-egoera. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko berariazko plan bat eta nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat ezar ditzan. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari exigi diezaion AIREF-Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentzia 2020rako eta 2021erako baimentzen dion gehieneko defizit-mugara iritsi ahal izatea. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroan egoera ekonomiko ahulean bizi diren pertsonen berma diezaien foru erkidegoan behar adina maskara izanen dutela. Mozioa erretiratzea (7. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—9/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea (8. or.).

—10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko irailaren 17an egindako bileran, erabaki zuen enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu zuen, eta 2020ko ekainaren 6ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremurako mezenasgoari buruzko foru lege bat taxutu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko irailaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremurako mezenasgoari buruzko foru lege bat taxutu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du landa eremurako mezenasgo-

ari buruzko foru lege proiektu bat taxutu dezan, edo, bestela, onura fiskalak onets ditzan, landa eremua eta bertako biztanleen bizitza hobetzen duten proiektuetarako pertsona fisikoek eta enpresek egindako ekarpenek egiazko itzulkina izan dezaten eta, halatan, populazio-galerak ukitutako eremuetan proiektu gehiago bultzatu ahal izan daitezen”.

Iruñean, 2020ko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri sorta bat prestatu eta abian jar dezan, pandemiak irauten duen bitartean laneko eta familiako bizitzen uztartzea ziurtatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko irailaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri sorta bat prestatu eta abian jar dezan, pandemiak irauten duen bitartean laneko eta familiako bizitzen uztartzea ziurtatzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere bi hilabeteko epean neurri sorta bat prestatu eta abian jar dezan, pandemiak irauten duen bitartean laneko

eta familiako bizitzen uztartzea ziurtatzeko. Neurri horien artean ondokoak jasoko dira:

- Eragile sozioekonomikoekin plan urgente bat taxutu eta adostu dezan enpresetan malgutasun-neurriak ezartzeko, halako moduan non gurasoek lana eta zaintza bateragarri egin ahal izanen baituzte krisi sanitario honetan.

- Toki eta gizarte entitateentzako finantzaketa-formulak taxutu ditzan, hezkuntza ez-formaleko erkidego-programak ezartzeko eta aisia-jarduerak eskaintzeko, segurtasun sanitarioko neurriak beteta, ikasturtean zehar kontziliazioa errazteko xedez.

- Lehenbailehen mahai bat sortzea, ondokoan parte-hartzea izanen duena: Nafarroako Berdinta-

sunerako Institutua, alderdi politiko, sindikatu eta mugimendu feministaren ordezkariak, emakumeen elkarteak, familia mota desberdinen elkarteak, gurasoen elkarteak, zainketa sareak, arreta prebentiboko zerbitzuak eta elkargo profesionalak. Mahaiaren xedea izanen da pandemian zehar sortzen diren kontziliazio arazo berariazkoak identifikatu eta aztertzea.

- Hamabi urtetik beherakoak, adinekoak edo/eta mendetasun- edo desgaitasun-egoeran

daudenak zaintzeko laguntza ekonomikoko programa bat sor dezan, eszedentziak eta lanaldi murrizketak jasoko dituen, errentaren arabera, baldin eta egiaztatzen bada ezin dela beste bateratze-neurririk hartu. Nafarroako Gobernuak arautuko ditu eskaerak egiteko eta ebatzeko baldintzak, errenta-tarteak, zenbatekoa eta prozedura”.

Iruñean, 2020ko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da garapen digitaleko estrategia bat defini dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko irailaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da garapen digitaleko estrategia bat defini dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du defini dezan, urtea bukatu ai-

tzin, garapen digitalerako estrategia bat, administrazioa digitalizatzeko ekintzak bildu eta koordinatu dituen, ekintzen garapenean ahalik eta eraginkortasun handiena lortzen saiatzeko, eta Europatik babes ekonomiko handiena izan dezan Nafarroa osoaren –eta, zehazki, nafarren, haien enpresen, entitateen eta gainerako erakundeen– eguneratze teknologikoan”.

Iruñean, 2020ko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Ospitalegunea urgentziaz erreforma dezan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko irailaren 16an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Ospitalegunea urgentziaz erreforma dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Ospitalegunearen presako erreforma egin dezan, Pediatriako behin-behineko ZIUn sei ohe individual jartzeko boxetan, SICCA sare informatikora konektatzeko eta aire medizinalerako hartuneak paratzeko, box guztietan arnasgailuak konektatu ahal izan daitezen”.

Iruñean, 2020ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren izapideak egin ditzan Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin, Lizarrako osasun etxearekin partekatzen dituen instalazioen lagapena/dohaintza egiteko.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko irailaren 16an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren izapideak egin ditzan Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin, Lizarrako osasun etxearekin partekatzen dituen instalazioen lagapena/dohaintza egiteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, behar diren izapideak egin ditzan Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin, Lizarrako osasun etxearekin partekatzen dituen instalazioen lagapena/dohaintza egiteko eta ondoren moldatzeko, bigarren sarbide eta zirkuitu gisa erabil daitezten arnas-gaixotasunen edo infekzioen susmoa pizten dutenentzat”.

Iruñean, 2020ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebalua ditzan COVID-19aren pandemia dela-eta neska-mutiko desgaituen ahalmen funtzionala eta narriadura-egoera.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko irailaren 16an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebalua ditzan COVID-19aren pandemia dela-eta neska-mutiko desgaituen ahalmen funtzionala eta narriadura-egoera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du albait lasterren ebalua ditzan COVID-19aren pandemia dela-eta errehabilitazioko terapiarik jaso gabe hilabeteak daramatzaten neska-mutiko nafar desgaituen ahalmen funtzionala eta narriadura-egoera.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du errehabilitazioak berriz has ditzan kolektibo horretan –arriku handieneko kasuetan, berehala–, ohiko errehabilitazio-modalitatearen edo etxez etxeko errehabilitazioaren bidez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, pandemiak dirauen bitartean ez jartzeko berriz ere arriskuan desgaitasuna duten neska-mutikoen errehabilitazio-terapiak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala presta dezan Osasun eta Hezkuntza departamentuen arteko protokolo bat, mediku-irizpidearen arabera eskola-ko opor sasoian eten ezin diren errehabilitazio-terapiak egiten jarraituko dela bermatuko duena”.

Iruñean, 2020ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazte enpleguari eta ekintzailetzari buruzko berariazko plan bat eta nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat ezar ditzan.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko irailaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazte enpleguari eta ekintzailetzari buruzko berariazko plan bat eta nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat ezar ditzan. Mozioa Ángel Ansa Echeaga-

ray jaunak aurkeztu zuen eta 2020ko abuztuaren 21eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari exigi diezaion AIREF-Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek 2020rako eta 2021erako baimentzen dion gehieneko defizit-mugara iritsi ahal izatea.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko irailaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari exigi diezaion AIREF-Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek 2020rako eta 2021erako baimentzen dion gehieneko defizit-

mugara iritsi ahal izatea. Mozioa José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu zuen eta 2020ko irailaren 15eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroan egoera ekonomiko ahulean bizi diren pertsonen berma diezaien foru erkidegoan behar adina maskara izanen dutela.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko irailaren 17an egindako Osoko Bilkuran, adierazi zuen jakinararen gainean dagoela Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Osasun Departamentua premiatzen zen Nafarroan egoera ekonomiko ahulean bizi diren pertsonen berma diezaien foru erkidegoan behar adina maskara izanen dutela, eta

2020ko irailaren 15eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

9/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 9/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea. Foru Lege-dekretua 2020ko irailaren 17ko 211. eta 2020ko irailaren 21eko 213 Nafarroako Aldizkari Ofizialetan argitaratu zen. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri dio, baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2020ko urriaren 1eko Osoko Bilkuran eginen direla irailaren 16ko 9/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. Foru Lege-dekretu horrek ezartzen du, Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea. (10-20/DLF-00009).

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

9/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea.

|

Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazio neurri urgenteei buruzkoak, prebentzio, euste, eta koordinazioko berariazko neurri batzuk ezarri zituen Espainiako lurralde osorako, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren amaiera deklaratu arte bete beharrekoak. Arau horretan, jasotzen dituen berariazko neurriak zaintzea, kontrolatzea eta eraginkorrak izatea bermatzeko betebeharrak gain, gainerako administrazioei ezartzen zaie, berariaz, osasun publikoa antolatu eta babesteko eskumena duten agintaritzak eskudunak diren aldetik, agindu hau: higiene, prebentzio eta euste baldintzak jarduera sektore guztietan bermatzeko beharrezkoak diren neurriak inplementatzea.

Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuaren ondorioz, Nafarroako Gobernuaren 2020ko ekainaren 19ko Erabakia onetsi zen, Nafarroako Foru Komunitatea normaltasun berrian sartzen dela deklaratzeko zuzena eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio neurriak ematen zituena, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren. Nafarroako Gobernuak 2020ko abuztuaren 26an hartutako beste erabaki batek aldatu du erabaki hura.

Era berean, erabaki horren osagarri, Osasuneko kontseilariak 34/2020 Foru Agindua eman zuen 2020ko uztailaren 15ean, zeinaren bidez maskararen erabilerarekin lotutako prebentzio neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisialdian. Osasuneko kontseilariaren uztailaren 17ko 35/2020 Foru Aginduak aldatu zuen aurreko foru agindu hori. Beste alde batetik, onetsi dira, halaber, Osasuneko kontseilariaren abuztuaren 28ko 40/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez COVID-19ak eragindako osasun krisialdian maskararen erabilerarekin lotutako prebentzio neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe eta unibertsitateetarako, eta irailaren 11ko 42/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez prebentzio neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Osasuneko kontseilariak uztailaren 17an emandako 35/2020 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean dauden "aisialdiko etxabe", "pipote" deitutakoen edo antzekoen jarduera bertan behera uzteko agindua eman zen.

Azkenik, Osasuneko zuzendari nagusiak abuztuaren 5ean emandako 598/2020 Ebazpena onetsi zen, zeinaren bidez prebentzio neurriak ezartzen baitira gaueko aisialdiaren esparruan, indarra izan dezaten Nafarroako Foru Komunitate guztiko herrietako festak izanen liratekeen aldian, bai eta uztailaren 22ko 7/2020 Foru Lege-dekretua ere, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berri-rako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren. Foru Lege-dekretu hori indargabetu zuen, hein batean, abuztuaren 17ko 8/2020 Foru Lege-dekretuak, ohiz kanpoko neurriak onesten dituenak COVID-19aren kasu positiboan igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko.

Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuaren 31. artikulua ezarri zuenez, batetik, ezarritako prebentzio neurriak eta betebeharrak ez betetzeagatik, osasun publikoaren arloko arau-hauste administratiboak direnean, zehapena jarriko da, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorren VI. tituluan xedatutako moduan; bestetik, neurriak betetzen direla zaindu, ikuskatu eta kontrolatzeko lanak, bai eta bidezkoak diren zehapen prozeduren instrukzioa egin eta ebaztekoak ere Estatuko, autonomia erkidegoetako eta toki entitateetako organo eskudunei dagozkie, zein bere eskumenen esparruan arituta.

Orain arte izan dugun zehapen araubidea sakabanaturik dago zenbait lege testu desberdinetan, eta, nahiz eta osorik egon araututa, izaera orokorra du, eta horrek galarazi ez, baina zailago bihurtzen du herritarrek jakitea zein diren jokabide edo ez-egite juridikoki gaitzesgarriak ikuspuntu administratibo batetik.

Horrela, zenbait jokabide tipifikaturik daude arau-hauste gisa Estatuko Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean –II. kapitulu– eta Estatuko Osasunari buruzko urriaren 4ko 33/2001 Lege Orokorrean –VI. kapitulu–, eta horri gehitu behar zaio ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretua, osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazio neurri urgenteei buruzkoa, 6. artikuluan arau-hauste arin gisa tipifikatzen baitu maskararik ez eramatea hala eskatzen den kasuetan, ez-betetze bat den aldetik.

Beste arlo bati dagokionez, aipa daitezke lantokietan enpresaburuek nahiz langileek COVID-19ari aurre egiteko onetsi diren neurriak ez betetzean gertatzen diren kasuak; ez-betetze horiei lan arloko legeriari jarraikiz ezarriko zaie zehapena, Lan arloan arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bategina onesten duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren babesean. Josteta jardueren, ikuskizun publikoen eta horiek egiteko establezimenduen esparruan, berriz, aplikatzekoak dira Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea eta hura garatzen duten xedapenak.

Aurreko guztia kontuan harturik, foru lege-dekretu honen xedea da gai hauetako arau-hausteak argitu eta zehaztea, herritarrek segurtasun juridikoa handiagoa izan eta hobeki jakin dezaten zein diren zigor administratiboa jaso dezaketen jokabideak; horrekin batera, arau-hausteen eta zehapenen legezkotasunaren eta tipikotasunaren printzipioa betetzen da, erabakitako neurrietan ezartzen diren betebeharrekin bat etorri, izan ere, printzipio hori Konstituzioaren 25. artikuluan ezarrita baitago, agintzen baitu ezin duela inork zigorrik jaso ekintza edo ez-egiteen ondorioz, horiek gertatzen direnean, unean-unean indarra duen legeriaren arabera, delitu, falta edo arau-hauste administratiboa ez badira. Hori guztia, ezertan ukatu gabe osasun arloko arau-hauste eta zehapenen araubide orokorra edo beste bat aplikatu ahal izatea, indarreko ordenamendu juridikoan aurreikusirik dagoena.

II

Presako eta ohiz kanpoko premia kasua gertatzeaz Konstituzio Auzitegiak dio eskatzen dela, gobernuak hura onestean kontuan hartu dituen arrazoiak esplizituki eta arrazoituta, hau da, funtsean, urgentzia egoera deitu dena, aurkeztea ez ezik, zehaztutako urgentzia egoeraren eta berorri aurre egiteko hartu den neurri zehatzaren arteko nahitaezko lotura bat egotea ere.

Horretarako, foru lege-dekretu honen xedea da urgentziazko eta premiazko legeria justifikatzen duen helburua betetzea, hau da, berehalako araudi bat ematea epe labur batean, ohiko legegintza prozedura baterako behar dena baino handiagoa, horrek bermatu dezan Nafarroak bertako osasun publikoa babestearren hartu dituen neurriak eraginkorrak direla.

III

Foru lege-dekretu honek hiru kapitulu, 15 artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat eta lau azken xedapen ditu. I. kapituluan jasotzen dira xedapen orokorrak, aplikazio eremua, erantzuleak eta ikuskapen eta kontrol lana. II. kapituluan araututa daude COVID-19aren arloko arau-hausteak eta zehapenak, eta III. kapituluan zehapen prozedurari buruzko zenbait gai arautzen dira, aktak, behin-behineko neurriak, zehatzeko eskumena eta preskripzioa.

Xedapen iragankorrean ezartzen da zein den aplikatu beharreko araubidea foru lege-dekretu honen aurretik irekitako zehapen prozeduretan.

Azkenik, azken xedapenetako lehenak ezartzen du Nafarroako Parlamentuak jokoaren eta apustuen arloan onetsi zuen moratoria mantenduko dela, baina ñabardura batzuk gehituta makinak jartzeko baimenen mugei, eta akats bat zuzenduta irailaren 1eko 14/2020 Foru Legearen azken xedapenean egindakoa; foru lege horren bidez, ohiz kanpoko neurri batzuk hartzen baitira koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak eta Osasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeiko irailaren hamaseian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritz,

DEKRETATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege-dekretu honen xedea da berariaz arautzea COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko Nafarroako Foru Komunitateak ezarri dituen osasun neurrien ez-betetzei aplikatu beharreko zehapen araubidea.

2. artikulua. Aplikazio eremua eta erantzuleak.

1. Foru lege-dekretu honetan bildutako xedapenak aplikatuko dira Nafarroako Foru Komunitatean ez-betetze gisa tipifikaturik dauden egitate, ekintza edo ez-egiteetan, edozein pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuk egindakoetan, horiek ekartzen badute agintaritzaren eskudunek beren eskumenen esparruan emandako egintza edo xedapenen bidez eman eta erabakitako neurriak, orokorrak edo berariazkoak, ez betetzea edo haiei kontra egitea.

2. Erantzuleak izanen dira, halaber, establezimendu publikoen edo horien lizentzien titularrak, eta ikuskizun publikoen eta josteta jardueren antolatzaileak eta sustatzaileak, haiena izanen baita ikuskizunean edo jardueran parte hartzen dutenek egindako arau-hausteen gaineko erantzukizuna, baldin eta, arduragabekeria tarteko, halakoak ekiditeko behar diren neurriak ez badiutuzte hartu edo, hartuta ere, bertaratutakoek neurriak bete ez badiutuzte eta entitate titularrak, antolatzaileak edo sustatzaileak berehalakoan horren berri eman ez badio agintaritzaren eskudunari.

3. Turismo edo merkataritzako ustategien, enpresen edo jardueren titularrek izanen dute langileek zerbitzuak ematean egindako arau-hausteen gaineko erantzukizun administratiboa, eta haien kontra dagozkien berreskaera akzioak betetzen ahalko dituzte.

4. Arau-hauslea adingabea denean, ezarritako isunaren erantzukizun solidarioa izanen dute gurasoek, legezko tutoreek, hura harreraren dutenek edo haren lege zaintza dutenek.

5. "Aisialdiko etxabeak", "pipote" izenekoak edo antzekoak kasuan, erantzuleak izanen dira legez kanpoko jardueran ari diren pertsona fisikoak.

6. Elkarte gastronomikoen eta "peña" direlakoak kasuan, erantzuleak izanen dira bertan legez kanpoko jardueran ari diren pertsona fisikoak.

7. Erantzuleak izanen dira prebentzioko osasun neurriak hartzea galarazi edo oztopatzen duten jende pilaketak sortzen dituzten ekitaldi edo

bilkuretarako deialdia egiten duten pertsona fisikoak edo juridikoak, egoera horrek jendearen osasunerako arrisku edo kalte larria eragiten duenean edo eragin dezakeenean; erantzuleak izan diren, halaber, ekitaldi edo bilkura horien zabalkundean laguntzen dutenak.

3. artikulua. Ikuskapen eta kontrol lanak.

1. Estatuaren eskumenak ukatu gabe, foru lege-dekretu honetan xedatutakoa betetzearen gaineko ikuskapen eta kontrol lanak Nafarroako Foru Komunitateko edo toki entitateetako agintaritzaren edozein agentek edo funtzionarioek beteko ditu, behar bezala akreditatuta.

2. Nafarroako Gobernuak eskatzen ahalko dio Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean duen Ordezkaritzari bere agintepean dituen Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek parte har dezatela dagozkien ikuskapen eta kontrol lanetan.

3. Era berean, toki entitateen bitartez, jarraibideak bidaltzen ahalko dira ikuskapen eta zainketa lanak koordinatzeko eta irizpideak bateratzeko.

II. KAPITULUA

Arau-hauste eta zehapenen araubidea

4. artikulua. Arau-haustekak.

Esparru honetako arau-hauste administratiiboak arinak, astunak eta oso astunak izan diren, irizpide hauen arabera: osasunerako arriskua, intenzionalitate maila, sortutako osasun- eta gizarte-kaltearen larritasuna eta arau-haustea orokortzea eta berrerortzea.

5. artikulua. Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arintzat joko dira:

1. Maskara erabiltzeko betebeharrak ez betezea edo behar ez bezala erabiltzea, osasun-agintariak ezarritako baldintzetan.

2. Agintari eskudunek ezarritako higie- eta prebentzio-neurriak ez betetzea, edozein establezimendu edo jarduera motatarako, leku irekian edo itxian, publikoa edo pribatua izan, herritarren osasunerako arrisku edo kalte arina sortzen denean.

3. Jendaurreko establezimenduek ez betetzea mahai bananduetako aukien arteko segurtasun-distantzia, ez barrualdean ez kanpoaldean.

4. Jendaurreko establezimenduek edo jarduera publikoek ez betetzea bezeroei edo erabiltzaileei informazioa eman beharra ordutegiari, lokalaren edukierari, pertsonen arteko distantziari eta, hala badagokio, maskara erabiltzeko nahitaezkotak

sunari buruz, COVID-19aren prebentzio-neurri gisa.

5. Agintari eskudunek onartutako berariazko planak edo antolaketa-protokoloak ez betetzea, horrek herritarren osasunerako arrisku edo kalte arina eragiten badu.

6. Kontingentzia-protokolo edo -planak egiteko betebeharrak ez betetzea, protokolo edo plan horiek egiteko betebeharrak agintari eskudunek ezarria duten establezimendu edo jardueren kasuan, baldin eta herritarren osasunerako arrisku edo kalte arina sortzen bada.

7. Pertsonen arteko segurtasun-tarte fisikoak ez betetzea leku edo bide publikoetan edo jendea pilatzen den toki ireki edo itxietan, adostutako baldintzetan.

8. Osasun-agintaritzak eskudunak erabaki duen berrogeialdiko kautela-neurria ez betetzea COVID-19agatik positibo eman ez duten baina COVID-19a duen pertsona erri baten kontaktu estuan diren pertsonen kasuan.

9. Edari alkoholduen partekatzea bide publikoan eta osasun-agintaritzak baimentzen ez dituen jendaurreko gainerako gunetan, herritarren osasunerako arrisku arina dagoenean.

10. Bide publikoan edo aire zabalean erretzea (tabakoa, ur pipak, katxinbak edo antzekoak), baldin eta ezin bada gorde 2 metroko gutxieneko tartea pertsonen artean.

11. Osasun-agintaritzak eskudunak dekretu-erreturiko konfinamendu agindu orokorra ez betetzea.

12. Foru lege-dekretu honen arabera hartutako behin-behineko neurriak urratzea.

6. artikulua. Arau-hauste astunak.

Arau-hauste astuntzat joko dira, herritarren osasunerako arrisku edo kalte larria sortzeagatik:

1. Establezimenduetan edo jardueretan edukiera-mugak edo baimendutako gehieneko pertsona-kopuruak ez betetzea.

2. Bilera, jai edo beste edozein jarduera edo ekintza iraunkor edo noizbehinkakoren bat egin edo merkaturatzea, pribatua edo jendaurrekoa, espazio publiko edo pribatuetan, baldin eta bertan jende pilaketak gertatzen badira, eragotziz edo zailduz prebentzioko osasun-neurriak hartzea eta, ondorioz, herritarren osasunerako arrisku edo kalte larria ekarriz.

3. Era berean, arau-hauste astuntzat joko da horrelako egintza edo bilerak sare sozialen bidez deitzea, baldin eta deialditik ondoriozta badaiteke

osasan-agintaritza eskudunak emandako arauak urratzeko asmoa dagoela COVID-19aren aurkako prebentzio-neurriei dagokienez.

4. Establezimendu edo jarduera mota bakoitzerako ezarritako higie-, prebentzio- eta kontrol-neurri orokorrak edo espezifikoak ez betetzea, espazio edo lokal publiko edo pribatuetan, horrek biztanleriaren osasunerako arrisku edo kalte larria eragiten badu.

5. Osasan-agintaritza eskudunek berariaz debekatutako edo bertan behera utzitako lokalak irekitzea, ekitaldiak egitea edo jarduerak egitea.

6. Osasan-agintaritzak adostutako etxean bakartzeko betebeharrak ez betetzea, COVID-19a dela eta baieztatutako kasu positiboak diren pertsonen kasuan.

7. Kontingentzia-protokolo edo -planak egiteko betebeharrak ez betetzea, protokolo edo plan horiek egiteko betebeharrak agintari eskudunek ezarria duten establezimendu edo jardueren kasuan, baldin eta herritarren osasunerako arrisku edo kalte larria sortzen bada.

8. Agintari eskudunek onartutako berariazko planak edo antolaketa-protokoloak ez betetzea, horrek herritarren osasunerako arrisku edo kalte larria eragiten badu.

9. COVID-19aren aurkako neurrien ondorioz establezimendu edo jarduerak irekitzeko edo ixteko ezarritako ordutegi bereziaren ez-betetzea egiaztatua.

10. Agintaritza eskudunari ez jakinaraztea gaixotasunaren susmorik edo diagnostikorik izan den, edo deklaratu beharreko gertaera garrantzitsurik izan den.

11. Agintari ikuskatzaileei edo agenteei laguntza, sorospena edo lankidetzak ukatzea, edo establezimendu, zentro, instalazio edo jardueretara sartzen ez uztea, COVID-19arekin lotutako egiaztapen edo ikuskapenetan.

12. Datuak emateari aurka egitea edo agintariei, ikuskatzaileei edo agenteei informazioa emateko oztupoak jartzea, baita informazio okerra ematea ere, COVID-19arekin lotutako egiaztapen edo ikuskapenetan.

13. Edari alkoholikoen partekatzea bide publikoan edo osasan-agintaritzak baimentzen ez dituen jendaurreko gainerako gunetan, herritarren osasunerako arrisku larria dagoenean.

14. Osasan-agintaritza eskudunak dekretaturiko konfinamendu agindu orokorra behin eta berriz ez betetzea.

15. Arau-hauste arin bat baino gehiago behin eta berriz egitea urtebeteko epean, ebazpen irmo baten bidez halakotzat jo bada.

16. Onartutako araudia edo COVID-19ak eragindako osasan-krisiari aurre egiteko hartutako neurriak, aginduak, ebazpenak edo egintzak ez betetzea, egitez edo ez-egitez, betiere herritarren osasunari kalte larria eragiten badiote.

7. artikulua. Arau-hauste oso astunak.

Arau-hauste oso astuntzat joko dira, biztanleriaren osasunerako arrisku edo kalte oso larria sortzeagatik:

1. Establezimenduetan edo jardueretan edukiera-mugak edo baimendutako gehieneko pertsona-kopurua ez betetzea, horrek herritarren osasunerako arrisku edo kalte oso larria eragiten duenean.

2. Bilera, jai edo beste edozein jarduera edo ekintza iraunkor edo noizbehinkakoren bat egin edo merkaturatzea, pribatua edo jendaurrekoa, espazio publiko edo pribatuetan, baldin eta bertan jende pilaketak gertatzen badira, eragotziz edo zailduz prebentzioko osasan-neurriak hartzea eta, ondorioz, herritarren osasunerako arrisku edo kalte oso larria ekarriz.

Arau-hauste oso astuntzat joko da horrelako egintza edo bilerak sare sozialen bidez deitzea, baldin eta deialditik ondoriozta badaiteke osasan-agintaritza eskudunak emandako arauak urratzeko asmoa dagoela COVID-19aren aurkako prebentzio-neurriei dagokienez eta herritarren osasunerako arrisku edo kalte oso larria dagoela.

3. Osasan-agintaritza eskudunek berariaz debekatutako edo bertan behera utzitako lokalak irekitzea, ekitaldiak egitea edo jarduerak egitea, herritarren osasunerako arrisku edo kalte oso larria eragiten dutenean.

4. Osasan-agintaritzak erabakitako etxean bakartzeko betebeharrak behin eta berriz eta modu egiaztatuan ez betetzea, COVID-19a dela eta baieztatutako kasu positiboak diren pertsonen kasuan, baldin eta horrek osasan publikoari kalte oso larria eragiten badiot.

5. Establezimendu edo jarduera mota bakoitzerako ezarritako higie-, prebentzio- eta kontrol-neurri orokorrak edo espezifikoak ez betetzea, espazio edo lokal publiko edo pribatuetan, horrek herritarren osasunerako arrisku edo kalte oso larria eragiten badu.

6. COVID-19ak eragindako osasan-krisiari aurre egiteko hartutako neurriak edo araudia ez

betetzea, egitez edo ez-egitez, betiere herritarren osasunari kalte oso larria eragiten badiote.

7. Agintaritza eskudunak jasotako protokoloak, planak edo jarraibideak behin eta berriz eta modu egiaztatuan ez betetzea, baldin eta horrek osasun publikoari kalte oso larria eragiten badiot.

8. Agintari eskudunei, ikuskatzaileei edo agentei dokumentazio faltsua ematea, COVID-19arekin lotutako egiaztapen eta ikuskapenetan.

9. Arau-hauste astun bat baino gehiago behin eta berriz egitea urtebeteko epean, ebazpen irmo baten bidez halakotzat jo bada.

10. Onartutako araudia edo COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko hartutako neurriak, aginduak, ebazpenak edo egintzak ez betetzea, egitez edo ez-egitez, betiere herritarren osasunari kalte oso larria eragiten badiote.

8. artikulua. Zehapenak.

1. Arau-hauste oso astunak 60.001 eurotik 600.000 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.

2. Arau-hauste astunak 3.001 eurotik 60.000 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.

3. Arau-hauste astunak 3.001 eurotik 60.000 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.

4. 5. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako arau-hausteak gutxienez 300 euroekin zehatuko dira, baldin eta arau-hausleak ez badu errespetatzen 1,5 metroko segurtasun-tarte fisikoa.

5. 5. artikuluko 9. apartatuan ezarritako arau-hausteei 600 euroko gutxienezko zehapena izanen dute.

9. artikulua. Zehapen osagarriak.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren isunez landa, interesdunari entzun ondoren, zehapen osagarriak erabakitzen ahalko dira, hala nola arau-haustea gertatu den establezimendua, instalazioa edo zerbitzua aldi baterako ixtea edo jarduera egiteko debekua, gehienez ere bost urteko epean.

10. artikulua. Zehapena murriztea.

Proposatutako zehapena isun bat denean, zehapen-espeditatea irekitzeko ebazpenean ezarritako epea igaro baino lehen ordaintzen bada isunaren zenbatekoa, egitateen erantzukizuna aitortuko da, eta zehapenaren zenbatekoa ehuneko berrogeita hamarrean murriztuko da.

III. KAPITULUA **Zehapen prozedura**

11. artikulua. Ikuskapen eginkizunak.

Foru lege-dekretu honen xede diren gaitan eskumenak dituzten administrazio publikoek garatu beharko dituzte zeinek bere zaintza, ikuskapen eta kontrolerako eginkizunak eta, orobat, elkari laguntza eman beharko diote eta elkarlanean aritu beharko dute eginkizun horiek eraginkortasunez betetzen direla bermatzeko eta, hartara, ezarritako terminoetan Estatuko segurtasun indarren eta kidegoen, Foruzaingoaren eta udaltzaingoan lankidetzat eta laguntza izanen dute.

12. artikulua. Behin-behineko neurriak.

1. Arau-hausteak oso astunak edo astunak badira, prozedura ebazteko eskumena duen organoak agindu dezake Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 56. artikuluan ezarritako behin-behineko neurrietako edozein hartzea.

2. Nolanahi ere, aurreko paragrafoan ezarritako kasuan, behin-behineko neurri horiek berretsi, baztertu edo aldatu daitezke zehapen prozedurari hasiera ematen dion ebazpenean, zeina hartu beharko baita neurria hartu eta hurrengo hamabost eguneko epean. Ondoriorik gabe geldituko dira, behin epea bukatu, berretsi ez direnak.

13. artikulua. Zehapen prozedura.

Prozedura instruitu eta ebatziko da Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko zehapen araubidearen eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko printzipio eta xedapenen arabera.

14. artikulua. Zehatzeko eskumena.

Behar diren zehapen prozedurak instruitu eta ebaztea dagokie Osasun Departamentuari, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari eta toki entitateei, beren eskumenen esparruan.

15. artikulua. Preskripzioa.

1. Arau-hauste arinak urtebeteren buruan preskribatuko dira, astunak bi urteren buruan eta oso astunak hiru urteren buruan.

2. Arau-hauste arinengatik ezartzen diren zehapenak urtebeteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste astunengatik ezartzen direnak bi urteren buruan eta arau-hauste oso astunengatik ezartzen direnak bost urteren buruan.

Xedapen gehigarri bakarra. Eskumena.

Arau-hauste arin eta astunengatiko zehapen espedienteak ireki, instruitu eta ebaztea udalei dagokie, baldin eta udal horiek 50.000 biztanletik gorakoak badira.

Xedapen iragankor bakarra.

Foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenean jadanik hasita dauden zehapen prozedurak tramitatzen segituko dira, eta arau-haustea egin zenean indarrean zegoen araudiaren arabera ebatziko dira. Jadanik eginda dauden baina zehapen espedientea irekitzea eragin ez duten salaketak foru lege-dekretu honetan xedatutakoaren arabera tramitatuko dira, arau-haustea egin den unean indarrean dagoen legeria materiala aplikatzea onuragarriagoa denean izan ezik.

Azken xedapenetako lehena. Abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, Jokoari buruzkoa, aldatzea.

Abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorra aldatu da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Etetea.

Xedapen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabeteko epean, ez da onartuko eskaerarik, ezta baimenik emanen joko- edo bingo-areto berriak edo berariazko apustu-lokal berriak jartzeko.

Era berean, ez da onartuko eskaerarik, ezta baimenaren bideragarritasunari buruzko aurretiko kontsulten ebazpenik emanen ere.

Era berean, ez da eskaera berririk onartuko, ezta baimenik berririk emanen ere Joko-makinen

Erregelamendua onesten duen uztailaren 31ko 181/1990 Foru Dekretuaren 10. artikuluan aipatutako lokaletan joko-makinak eta apustu-makina lagungarriak jartzeko, salbu eta azken horrek eragina badu ostalaritzako lokalaren titulartasunaren aldaketan”.

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. apartatua ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako hirugarrena. Erregelamendu bidez garatzea eta betearaztea.

Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuetako titularrei ere, zeinek bere eskumenen eremuan, behar adina xedapen eman ditzaten, foru lege-dekretu honetan ezarrita dagoena garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarrean jartzea.

Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Iruñean, 2020ko irailaren 16an.

Nafarroako Gobernuako lehendakaria, María Chivite Navascués

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía

10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak. Foru Lege-dekretua 2020ko irailaren 21eko 213 Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri dio, baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2020ko urriaren 1eko Osoko Bilkuran eginen direla irailaren 16ko 10/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. Foru Lege-dekretu horren bidez neurri batzuk onesten dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak. (10-20/DLF-00010).

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak

ATARIKOA

2018ko martxoaren 26ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Funtzio Publikorako Estatu Idazkaritzaren 2018ko martxoaren 22ko Ebazpena, zeinaren bidez argitaratzen baita Enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Gobernuaren eta sindikatuen arteko 2018ko mar-

txoaren 9ko II. Akordioa. Akordio horretan, lehenbiziko atalean, ezarri zen soldata igoera finko baterako urte anitzeko esparru bat sektore publikoaren zerbitzuan ari diren langileentzat, baita ekonomiaren hazkundeari lotutako igoera-ehuneko aldakor bat ere, kalkulatu zena 2018-2020 aldiko Barne Produktu Gordin errearen igoeraren arabera.

Aipatu akordioaren lehenbiziko atalak aurreikusten zuen funts gehigarri batzuk izanen zirela aipatutako aldiko ekitaldi bakoitzerako (2018ko, 2019ko eta 2020ko ekitaldiak), deskribatzen ziren baldintzetan, eta funts horiek, negoziazio kolektiboaren ondoren, bideratzen ahal zirela, besteak beste, produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak ezartzera, pareko eginkizunak dituzten lanpostuen arteko osagarri espezifikoak berraztertzea, destinoko osagarriak homologatzea edo pentsio planei ekarpenak egitea. Gainera, 2021ean igoera gehigarri bat egiteko aukera erantsi zuen, ezartzen zituen baldintzetan.

Aurrekoa oinarri harturik, 2018ko urriaren 4an akordio bat sinatu zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen eta LAB, CCOO eta UGT sindikatuen artean, Enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Gobernuaren eta sindikatuen arteko 2018ko martxoaren 9ko II. Akordioaren lehen atalak ezartzen duena aplikatzeari buruzkoa. Akordio horrek, urte anitzeko izenpetu baitzen, neurri batzuk aurreikusten ditu langileen arlorako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen esparrurako, 2018-2021 aldirako. Nolanahi ere, neurri horien gauzatzea bat etorriko da une bakoitzean indarrean diren legeekin.

2018ko aurrekontu ekitaldiari dagokionez, Estatuko 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18.Bi artikulua xedatzen zituen, besteak beste, behar diren gaikuntzak posible izan zedin gauzatzea Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen esparruan 2018rako sinatutako urte anitzeko akordioa neurriak; hortaz, neurri horiei arau maila eman zitzaion urriaren 24ko 1/2018 Foru Lege-dekretuaren bidez, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk.

2019ko aurrekontu ekitaldiari dagokionez, Sektore publikoaren esparruko ordainsarien arloan premiazko neurriak onesten dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretuak antolamendu juridikoan txertatu zuen aukera bat, 2019rako ere gauzatu zitezten Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen esparruan 2018ko urriaren 4an sinatutako urte anitzeko akordioko neurriak; hortaz, neurri horiei arau maila eman zitzaizen maiatzaren 15eko 2/2019 Foru Lege-dekretuaren bidez (haren bidez, neurri batzuk onesten dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloan).

2020ko aurrekontu ekitaldiari dagokionez, Sektore publikoaren esparruko ordainsarien arloan premiazko neurriak onesten dituen urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege-dekretuak 3. artikuluan txertatzen du, aurreko ekitaldietan bezala, 2018ko urriaren 4an Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen esparruan sinatutako urte anitzeko akordioko neurriak gauzatzeko aukera.

Urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege-dekretuaren 3.Bi artikulua xedatzen du 2020an soldata-masa beste %0,30 igotzea baimentzen ahalko dela, produktibitatea edo efizientzia hobetzea helburu duten planak edo proiektuak ezartzeko, pareko eginkizunak dituzten lanpostuen arteko osagarri berariazkoak berrikusteko, destinoko osagarriak homologatzeko edota pentsio planetara ekarpenak egiteko, besteak beste.

Horrez gain, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen 6. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek estatuko legedian sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2020rako baimendutako gehieneko gehikuntza orokorra aplikatu behar diete beren funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariei 2020ko ekitaldian eta urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izanda.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeiko irailaren hamaseian egin-dako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritz,

DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Administrari laguntzailea. C mailan/taldean sartzeari.

Administrari laguntzaileen lanpostua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta

haren erakunde autonomoen plantilla organikoko C mailan/taldean sartzeari. "Administraria" deituko da, eta lanpostu horri dagozkion ordainsariak izanen ditu esleituta.

2. artikulua. Hezkuntza Departamentuari atxikitako zaintzaileen lanpostua. Inklusiorako Laguntzako teknikari bihurtzea eta C mailan/taldean sartzeari.

1. Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostua sortzen da, C mailan/taldean sartzeari dena.

2. Hezkuntza Departamentuari atxikitako zaintzaileen lanpostuaren izena eta lanpostua bera aldatzen dira; izan ere, hemendik aurrera, Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostua izanen da. C mailan/taldean sartzeari da, eta zaintzaileen lanpostuak egun Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoan esleiturik dituen ordainsarien ehunekoak mantenduko dira.

3. Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostuetan sartzeko, Gizarte integratioko goi mailako teknikari titulu berariazkoa izan beharko da; edo, bestela, Batxilergoko titulua edo baliokidea eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretaren profesionaltasun ziurtagiria. Aipatutako titulu eskatuko da lanpostu horiek eskuratzeko lehen deialdian eta foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera onesten direnetan.

4. Aurreko atalean adierazitakoa gorabehera, bost urteko bitarteko aldia ezartzen da, lege dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera, aipatutako titulu berariazkoa eskatzeko, Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostuak aldi baterako betetzen direnean. Aldi horretan, C mailako/taldeko lanpostuak betetzeko eskatzen den titulu orokorra duten izangaiek betetzen ahalko dituzte lanpostu horiek aldi baterako.

Atal honetan aurreikusitako bitarteko aldian, ez da Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanposturik sartuko lan publikoaren eskaintzetan, langile finkoek betetzekoetan.

3. artikulua. Zerbitzu orokorretako langileak eta suhiltzaile-peoi laguntzaileak. Lanpostuko osagarria handitzea.

Zerbitzu orokorretako langileen eta suhiltzaile-peoi laguntzaileen lanpostuko osagarria %3,32 handitzen da.

4. artikulua. Zeladoreak. Destinoko osagarria esleitzea.

Zeladoreen lanpostuari destinoko 1. mailako osagarria esleitzen zaio.

5. artikulua. Atal, bulego eta unitate parekatuetako buruen zuzendaritza lanpostuko osagarria.

Atal, bulego eta unitate parekatuetako buruen zuzendaritza lanpostuko osagarria kalkulatzeko, erreferentzia hartuko da A mailari/taldeari dagokion hasierako soldata, kontuan hartu gabe buru aritzen den pertsonaren lanpostuaren maila/taldea.

6. artikulua. Gizarte-langileak, gizarte-hezitzaileak eta psikomotrizistak. Lanpostuko osagarria handitzea.

Gizarte-langile, gizarte-hezitzaile eta psikomotrizisten lanpostuen ordainsariak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan B mailako/taldeko lanpostuek dituztenekin parekatzen hasteko (zeinek %35eko bateraezintasun osagarria eta lanpostuko %6,73ko osagarria baitituzte), aipatu lanpostu horien lanpostuko osagarria %2,88 igotzen da.

Lehen xedapen gehigarria. Integratzeko prozedura.

Administrari laguntzaileak administrari gisa C mailan/taldean sartzeko eta Hezkuntza Departamentuari atxikitako Inklusiorako Laguntzako teknikariak ere maila/talde horretan sartzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak horretarako ezartzen duen integratzeko prozedurari jarraikiko zaio.

Bigarren xedapen gehigarria. Foru lege-dekretu hau aplikatzeak dakartzan ondorioen data.

Foru lege-dekretu honetan jasotako neurriek auzeraeragina izanen dute 2020ko urtarrilaren 1etik.

Hirugarren xedapen gehigarria. Goragoko maila/talde batean sartutako langileek orain arteko eginkizunetan jarraitzea.

Foru lege-dekretu honen 1. eta 2. artikuluetan xedatutakoak ez du berekin ekarriko ukitutako langileek orain arte bete dituzten eginkizunak betetzeari uztea, ezta beste lanpostu baten eginkizunak esleitzea ere.

Laugarren xedapen gehigarria. Lanpostuaren erreserbarik gabeko eszedentzia egoera batek lanera itzultzea.

Langile bat borondatezko eszedentzian baldin badago administrari laguntzaileen edo Hezkuntza Departamentuko zaintzaileen lanpostu batean, lanera itzultzea eskatzen duenean lanpostu erreserbarik ez baldin badu, eskatu eta eskuratu deza-

ke jardunera itzultzea C mailako lanpostu huts korrelatibo batean.

Bosgarren xedapen gehigarria. Maila bereko lanpostuetarako, prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko izangaien zerrendetatik baztertzea.

Administrari laguntzaileen eta Hezkuntza Departamentuko zaintzaileen izendapena duten funtzionarioak, baldin prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko zerrendetan badaude C mailako/taldeko beste lanpostu batzuk betetzeko, zerrenda horietatik baztertuko dira foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenean.

Lehenbiziko xedapen iragankorra. Prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoerak mantentzea.

Administrari laguntzaileen eta Hezkuntza Departamentuko zaintzaileen izendapena duten funtzionarioak, baldin foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenean prestakuntzarako zerbitzu berezietan ari badira C mailako/taldeko beste lanpostu batean, zerbitzu berezietako izendapenari eutsiko diote izendapena ekarri zuen beharrak irauten bitartean. Behar hori bukatutakoan, langile horiek egoki den zerrendatik baztertuko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Indarreko kontratuak mantentzea.

Foru lege-dekretu honek indarra hartzean administrari laguntzaileen eta Hezkuntza Departamentuko zaintzaileen lanpostuetarako indarrean dauden kontratuek indarrean jarraituko dute, eta lanpostuaren maila/talde berriak ez du inola ere aldatuko kontratuaren iraupena, ezta hura iraungitzeko zergatiak ere.

Hirugarren xedapen iragankorra. Indarreko kontratazio zerrendak mantentzea.

1. Foru lege-dekretu honek indarra hartzean administrari laguntzaileen eta Hezkuntza Departamentuko zaintzaileen lanpostuetarako indarrean dauden kontratazio zerrendek indarrean jarraituko dute, egoki den goragoko mailako lanpostu korrelatiboak betetzeko. Beste kontratu bat egin ahal izateko, lanpostuaren maila edo talde berrirako behar diren baldintzak eskatuko dira, salbu eta 2. artikuluan ezarritako bitarteko aldian, Hezkuntza Departamentuko Inklusiorako Laguntzako teknikarientzako lanpostuei dagokienez.

2. Xedapen honetan aipatzen diren kontratazio zerrenda indardunak kudeatzen dituzten organoek zerrenda horietako izangaiei eskatuko diete frogatu ditzatela maila/talde berrirako beharrezkoak diren baldintzak, kontrataziorako deitzen zaienean, edo, bestela, epe orokor bat irekiko dute

zerrendako izangai guztiek aukera izan dezaten frogatzeko baldintza horiek betetzen dituztela.

Lanpostuaren maila/talde berrirako eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten izangaiak ez dira deitzeko moduan egonen kasuan kasuko zerrendan, eta deitzeko moduan egotera pasatuko dira frogatzen dutenean eskuratu dituztela edo badituztela aipatutako baldintzak.

3. Indarrean jarraituko dute foru lege-dekretu honek indarra hartzean Hezkuntza Departamentuko zainzaile lanpostuak betetzeko aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendek, bai eta Hezkuntza Departamentuko Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostuak aldi baterako betetzeko eratzen diren zerrendek ere (2. artikuluko bitarteko aldian eratuko dira zerrenda horiek, eta titulu orokorra eskatuko da), hain zuzen, aipatu bitarteko aldia bukatzen den arte.

Laugarren xedapen iragankorra. Prestakuntzarako zerbitzu berezietako zerrendak mantentzea.

Foru lege-dekretu honek indarra hartzean administrari laguntzaileen eta Hezkuntza Departamentuko zainzaileen lanpostuetan prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko indarrean dauden kontratazio zerrendek indarrean jarraituko dute, egoki den goragoko mailako lanpostu korrelatiboak betetzeko. Lanpostu horietan prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko izendapen berriak egiteko, lanpostuaren maila edo talde berrirako behar diren baldintzak eskatuko dira, salbu eta 2. artikuluan ezarritako bitarteko aldian, Hezkuntza Departamentuko Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostuei dagokienez.

Bosgarren xedapen iragankorra. Administrari laguntzaileendako deialdiak, bukatu gabe daudenak.

1. Gaur egun tramitatzen ari da administrari laguntzaile lanpostuan sartzeko hautapen prozedura. Puntuazio handiena lortuta prozedura hori gainditzeko duten izangaien artean deitutako lanpostu kopuruan sartzeko direnei funtzionario izendatzeko eskatzen zaizkien betekizunak eta baldintzak arautzeko, jarraituko zaio deialdi hori onesten duen ebazpenean ezarritakoari.

2. Gaur egun tramitatzen ari den hautapen prozedura bukatu ondoren onesten diren aldi batera-

ko kontratazioetarako izangaien zerrendetan sartuko dira parte-hartzaile guztiak, baldin eta betetzen badituzte deialdiaren oinarrietan horretarako eskatzen diren baldintzak.

Administrari lanpostuan aritzeko edozein kontratu egin ahal izateko, zerrendetan dauden izangaiak bete beharko dituzte lanpostuaren mailako/talderako beharrezkoak diren baldintzak. Horretarako, dagokion zerrenda kudeatzen duen organoak izangaiei eskatuko die frogatu dezatela baldintza horiek betetzen dituztela, kontratazioetarako deitzen zaienean, edo, bestela, epe orokor bat irekiko du zerrendako izangai guztiek aukera izan dezaten frogatzeko baldintza horiek betetzen dituztela.

Lanpostuaren maila/talde berrirako eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten izangaiak ez dira deitzeko moduan egonen kasuan kasuko zerrendan, eta deitzeko moduan egotera pasatuko dira frogatzen dutenean eskuratu dituztela edo badituztela aipatutako baldintzak.

Azken xedapenetako lehena. Ordainsari osagarriak aldatzeko gaikuntza.

Nafarroako Gobernua gaitzen da plantilla organiko lanpostuen ordainsari osagarriak aldatzeko, indarreko araudiarekin bat.

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar ramunean.

Iruñean, 2020ko irailaren 16an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria, María Chivite Navascués

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía

